

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 16 urtera arte izatea egokia al da? Hainbat pertsonen, batez ere gurasoek, ongi ikusten dute, baina zein da nire iritzia honen inguruan?

Ikasle on artean, hainbat iritzi egongo dira, baina jarraian, nik nire iritzia, edo ikuspuntua azalduko dut. Txikitatik hasten gara ikastolara joaten, eta gauza asko ikasten ditugu. Baina Lehen Hezkuntza amaitu ondoren, DBH hasten da (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza). Ikasle askori, antza denez, alferritakoa iruditzen zaie eskolara joatea, baina eskolan ordea, gauza asko ikasten dira. Handitzen garenean, lan bat aukeratu ahal izateko oso garrantzitsua da gaur egun ikasketak edukitzea.

DBHn gaudela, iruditzen zaigu askotan, ez duela ezertarako balio ikasten ari garenak, baina nire ustez, gauzak ikastea garrantzitsua da. Izan ere, DBH amaitutakoan, ikasketekin jarraitu nahi badugu, unibertsitatean... iruditzen zait oso garrantzitsua dela hezkuntza maila egokia edukitzea. 16 urte egin arte, DBH hasten denetik, milaka gauza ikasten ditugu, eta nire ustez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, eskolako materia guztiaz gain, beste hainbat gauza garrantzitsu ikasten eta bizitzen dira; esaterako, lagunartean.

Adin horretatik aurrera, berriz, eta DBH amaitu ondoren, bakoitzak nahi duena ikasi dezake, edo nahi duena egin dezake. Ikastolan, gauza asko erakusten dira; hainbat ikasgai desberdin daude, eta ez dut uste eskolako ikasgaiak alferrikakoak direnik. Laburbilduz, niri iruditzen zait, ikasketek balio handia dutela, beraz, ados nago, gutxienez, 16 urtera arte ikasketak derrigorrezkoak izatearekin.

Azkenik, hau guztia idatzi ondoren atera dudan ondorioa da, nahiz eta jende guztiarentzat ezarritako adina egokia ez izan, ondo pentsatuta dagoela; artikuluan aipatu ditudan arrazoi guztiengatik, garrantzitsua delako ikasketak edukitzea.

June Goenaga Elurbe

Azpeitiko Urola Ikastola BHI

DBH 4E